

**ezagutzen al  
duzu Donostia?**

**Aparrain**

Antzina, *Urumeako zillegi-mendiak* Donostia, Hernani eta Urnietakoek ziren; 1671. urtean hiru herrien arteko komunitatea hautsi zuten. Donostia gelditu zen ondasun gehienekin; horien artean *Ereñotzu*, *Abillats* eta *Aparraingo* burniolak. Lanearan irauteko behar zuten ikatza *zillegi-mendiek* hornitzen zuten. Liberalismoak ekarri zituen desamortizazio legeekin Gipuzkoako herrimendi gehienak esku pribatuetara pasa ziren, eta honela, Donostiak herrimendi, burniola, sarobe eta Urumea aldeko ia ondasun guztiak galdu zituen. Mendi haietatik guztietatik Donostiak *Oberango* mendiarri eutsi dio gaur arte. *Oberango* mendien mendebaldera aurkitzen ziren *Aparraingo* burniola eta sarobeak. Gaur leku honetan hiru bizitzako baserri handi bat dago, *Aparrain*, *Aparren* edo *Aparrain* deitzen dena. Etxe hau Hernaniko udal barrutiari dagokio, baina Donostia, Hernani eta Nafarroako Arano herrien arteko mugarria Urumea



Aparrain, hiru bizitzako baserria Oberango mendien mugetan.



Aparraingo burniola zaharraren uraska.

ibaiaren urbitarte\* txiki batean dago, baserritik 80 metro ekialdera. Burniola zaharraren aztarnak inguru honetan guztian agertzen dira; uraska\* garbi iger daiteke gaur ere -hau

Donostiako udalbarrotiari dagokio-, baserritik iparrerialdera 160 metrora gutxi gora behera.

\***Urbitearte:** Beterri guztian honela deitzen zaie ibaietako uharterei.

\***Uraska:** onda aska: burniolako gupil hidraulikoaren palak eragin ondoren urak ateratzen ziren lekua.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE



**SUKALDE**  
**ALTZARIAK**

sukaldeak galeriak

**GIPUZKOA**

ELEKTRAGAILUAK

TB.

BIDEOA

Gipuzkoa Plaza 4 • ☎ 42 35 65